

# Pedro Cayuqueo

Azkintuwe aldizkariko zuzendaria

## «Maputxe ororen plataforma izan nahi dugu»

2003an, herri maputxe ororentzako hedabidea amets zutenek Azkintuwe (Behatokia) bihilabetekaria sortu zuten. Zuzendaria Pedro Cayuqueo (Puerto Saavedra, Txile, 1976) da, kazetaria, abokatu eta ekintzailea. Hedabide maputxeen erronkez aritu gara berarekin.

ALVARO HILARIO PÉREZ DE SAN ROMÁN

Argazkia: Dani Blanco

PEDRO CAYUQUEOK ibilbide luzea dauka hedabide zein borroka maputxeetan. Urteak eman ditu herri maputxeak pairatzen duen jazarpenari aurre egiten, arma preziatuena hitza duela. Sareko egunkaria du *Azkintu*rek eta Andetako maldetatik itsasoraino paperezko 29 zenbakiko 100.000 ale banatu dituen aldizkariaren zuzendaria da Cayuqueo. Bertan kaleratzen diren hainbat artikulu mundu osoko agerkeriek erabiltzen dituzte. Maputxeek nazioarteko oihartzuna duen hedabidea daukate antza. “Gutariko batzuk kontrainformazio munduan murgilduak ginen. Aktibismoari lotutako aldizkariak egiten genituen, geu ere ekintzaile politikoak ginelako. 2003an, baina, ohiko kazetaritzak ezarritako arauak beteko zituen aldizkaria sortzea erabaki genuen, artean egiten genuenarekin, aktibismo mediatikoarekin, gizartearen eta beste hedabideen arreta erakartzea oso zaila baitzen”, azaldu du Cayuqueok. “Ez ginen gutxi kazetaritza ikasketak geneuzkanok; gero eta tresna gehiagorekin ari ginen. Egiten genuena aldatzea zen helburu: gure iritzia azaldu ez ezik, ikerketa kazeta-



“Maputxeen %20 baino ez da ekintzailea, beste %80k hedabide handien bidez izaten du gertatzen denaren berri”.

ritza bultzatuko zuen aldizkaria sortu nahi genuen. Egitasmoak harrera ona izan zuen; gero eta eragin handiagoa dugu”.

*Azkintuwe* prentsa idatzi maputxea ulertzeko bide berria da. Aldizkariak

ez du loturarik ez talde politikoe-kin, ezta erakundeekin ere.

Pinocheten diktadura garaian, talde politiko maputxeek hainbat buletin kaleratu zuten, zenbaki bat edo bi besterik ez zutenak. Geroago, 90eko hamarkadan, Lur Guztien Kontseiluak *Aukin* (Ahotsa) berripapera argitaratu zuen. Taldeak zituen eztabaiden berri ematen zuten. Militanteen artean banatzen bazen ere, ez zen herri maputxearen hedabide orokorra izatera ailegatu. 2000. urtea baino lehen, sarean ez zegoen gauza handirik. 1999an, *Resistencia Mapuche* sareko orrialdea egin genuen eta hurrengo urtean *Mapuexpress* jaio zen. Harrezkero, itzelezko hazkundea izan da; blogak eta mota guztietako ekimenak ugaltu dira Andetako alde bietan, nor bere lekutik, bere ikuspuntutik. Hedabide independentea gara. Aurreko esperientzia guztiei begiraturaz zaila da ulertzea, haiek guztiak talde politikoe-kin izan baitziren. Gure ustetan, berriz, funtsezkoa da independenteak izatea, denok tokia izateko. Talde zehatz batekoak izanez gero, ez zen izango gurekin lan egin nahiko zukeenik.

## Garabide Elkartean eskutik

Mondragon Unibertsitatean du hazia Garabide Elkartek. Euskara eta euskal esperientzia ditu ardatz eta herri indigenei ekarpena egitea da asmoa. Kooperazio sozioekonomikotik harago herrien nortasunaren eremuan laguntzeko xedea du. Iaz bezalaxe aurten ere, dozenatik gora maputxe, aimara, guarani eta maia gonbidatu dituzte Euskal Herrira. Aukera hori baliatuz elkarriketatu dugu Pedro Cayuqueo. Datozen asteotan Boliviako Leonel Cerruto eta Ekuadorko Maria Juana Farinango kitxuen elkarriketak irakurri ahal izango dituzue.

Hogei bat pertsona zarete aldizkariko langileak: erredaktoreak, argazkilaria, irudigileak eta Amerikan zehar diren berriemaileak. Gehienek musutruk egiten duzue lan. *Azkintu*wek arazoak ditu ekonomikoki bere buruari eusteko. Independentea izateak dakartzan arazoak...

Oso nekosoa da Txilen prentsa idatzia egitea, apostolutza egitea baino zerbait gehiago da: hil ala biziko beharra dugu. Txileko talde ekonomiko handiek, gure lurra ustiatzen duten transnationalei eta Gobernuari lotuak direnek, hedabide guztiak kontrolatzen dituzte, hala nola El Mercurio eta La Tercera holdingak. Berdin gertatzen da Argentinan. Beharrezkoa da, beraz, txanponaren beste aldea azaltzea, bai maputxeei zein maputxea ez den gizarteari. Maputxeen artean %20 baino ez dira ekintzaileak, beste %80k hedabi-



*Azkintu*wepaperezkoaren 29. zenbakia da, 2008ko otsailekoa. Sarean daude jaisteko moduan: [www.azkintu-we.org/](http://www.azkintu-we.org/).

de handien bidez izaten du gertatzen denaren berri, eta horrela, ez da zaila beraien anaia-arrebak "terroristatzat" jotzea. Badago geuri begira informatzeko beharra. Jendeak jakin dezala borroka egitea, gure burua antolatzea, ez direla "txerri komunistaren" kapritxoak herri eskaerak baizik eta aurrelantzean, beraiek ere jasoko dituztela honen guztiaren etekinak. Garai berri batean gaude: aktibismoan hasi ginen, gero nazioarteko salaketa bultzatzeko. Orain, herri maputxe ororentzako plataforma informatiboa izan nahi dugu. Horrek orain arte egin ez den lana egitea eskatzen du: giza arloa, kirolak, kontu xumeak –turismoa edota gastronomia, besteak beste– dira benetako hedabidea izateko derrigorrez jorratu behar ditugun gaiak, nahiz eta gure jarrera politikoak ez ezkutatu, azken batean politikan ere sartuak garelako. Bizirik dagoen, kontraesanak dituen eta etorkizuneko egitasmoak dituen herriaren komunikazio tresna izan nahi dugu. Gero eta hedabide gehiago edukitzea lagungarria da herria eraikitzeko.

Hizkuntzaz, mapudungunaz, berba egiterakoan herri irratia eta prentsa idatzia bereizten dituzu.

Oso zaila izan da mapudunguna prentsa idatzian sartzea. Hasteko, ez dugu gramatika bakarra, idazteko eta, batez ere, irakurtzeko premia zokoa dena. *Azkintu*wen erabili baino, hizkuntza berpizteko eta normalizatzeko balio duen espazioa eman nahi izan diogu. Hau da, mapudunguna normalizatzeko beharraren gaineko eztabaida eragin nahi dugu. Duela hiru urte, Hizkuntzen Nazioarteko Eguna zela eta, mapudungun hutsez egindako zenbaki berezia kaleratu genuen. Hura inprimatzea, harrera ikustea sinestezina izan zen. Hori egiteak hizkuntza aintzat hartzeko balio izan zuen. Mapudungunaren afera ikusaraztea oso inportantea da.

### Irratian errazagoa al da mapudunguna erabiltzea?

Gurea ahozko kultura izanik, tokian tokiko dialektoak badira ere, entzuleak berdin ulertuko du Andean zein itsasertzean. Garrantzitsua da irratia azken hogei urteotan eman duen jauzia. 90eko hamarkadan herri irratiek frekuentzia gutxiko tresneria zeukaten, eta jeneralean, lehenengo sei edo zazpi hilabete pasatakoan desagertu egiten ziren. Gerxeago, Argentinako eta Txileko irratietan, irratsaio maputxeak agertu ziren. Gaur egun, irrati komertzial maputxeak badira eta irrati argentinarrakiko zein txiletarrakiko menpekotasuna murrizten ari da. ■

### Maputxeen informazio gehiago:

[www.argia.com/astekaria/2121](http://www.argia.com/astekaria/2121)

(Pello Zubiriaren artikulua).

[www.argia.com/astekaria/2090](http://www.argia.com/astekaria/2090)

(Alvaro Hilaroren artikulua).

Babeslea: Donostiako Udala

Donostia solasean  
Euskara XXI. mendean  
hitzaldi zikloa



Hizlaria:  
Ana Eizaguirre

### Herritarrek alfabetatzen: euskaldunon historia

Azken berrehun urteetan euskaraz irakurtzen eta idazten nola ikasi eta irakatsi izan den, eta herritarrek euskaraz zer, noiz eta nola irakurri eta idatzi izan duten azaltzea da hitzaldiaren helburua. Herri xehearen baitan irakurketa eta idazketaren inguruan garatu diren praktika kulturalen oinarriko ezaugarrien ezagutzan murgildu gara, honek, etorkizuneko alfabetatze behar berriei erantzuteko garaian, argibideren bat eskainiko digulakoan.

2008ko azaroaren 12an, 19:00etan, Okendo kultur etxean



Itxiko Euskal Unibertsitatea

